



2018KO LEHENENGO DEIALDIA

Matrikulazioa: Erreklamazioak

Epea: 2018ko otsailaren 15era arte

Lekuak: [Zuzenean](#) Zerbitzuan

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Ramiro de Maeztu, 10 01008 Gasteiz	Gran Vía, 85 48011 - Bilbo	Andia, 13 20004 Donostia



Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariaren 2018ko urtarrilaren 30eko Ebazpena, EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) lortzeko azterketetarako onartutako eta baztertutako azterketa-gaien behin-behineko zerrenda argitaratzen duena.

Hezkuntza Sailburuordeak 2017ko azaroaren 10eko Ebazpenaren bidez (EHAA, 2017ko azaroaren 29a) 2018. urterako EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) azterketa-eredua finkatu eta agiria eskuratzeko azterketetako deia egin zuen. Lehenengo deialdirako eskabideak aurkezteko epea amaituta, hauxe

EBATZI DUT:

Lehena.- EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) eskuratzeko azterketetarako onartutako eta baztertutako azterketa-gaien behin-behineko zerrenda argitara ematea.

Bigarrena.- Aipatutako azaroaren 10eko II. Eranskineko 2. Artikuluan ezarritakoaren arabera, interesatuek matrikula egiteko webgune berean ikusi ahal izango dute euren eskabidearen egoera, erabili ohi duten erabiltzailea eta pasahitzarekin. Ez onartutako eskabideen kasuan, bertan adierazten da arrazoia.

AZKEN XEDAPENA

Interesatuek 2018ko otsailaren 15era arte zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkeztu edota akatsak zuzendu ahal izango dituzte. Erreklamazioak eta zuzenketak ebatzita daudela ulertuko da onartutako eta baztertutako behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 30a.

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Lucía Torrealdy Berruero
Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria